

Zilegi al da?



Zilegi duzue baratzeke
zuhaitz guztietatik
jatea...

ZILEGI DUZU... jatea

Determinatzailerik gabe erabiltzen da *zilegi*, **ZILEGI IZAN** gisako egituretan:

ZILEGI[ø] IZAN

ZILEGI DA... / ZAIO... / DU...

+

hitz egitea / gezurra / irtenbide hori...

zilegi DA

- Legearen aurkakoa ez dena **zilegi da**. (*...zilegia/zilegizkoa da...)
- Bide guztiak **dira zilegi** sormenean. (*...dira zilegiak/zilegizkoak)
- Ama-semeen arteko ezkontza **zilegi balitz**, ia beti gertatuko litzateke ezen, senarra naturaren bideetan ibiltzeko gai izan arren, emaztea ez izatea. (*...zilegia/zilegizkoa balitz...)

(*Legeen espirituaz II*, Montesquieu / Itzul.: Iñaki Iñurrieta)

Dokumentaturik dago euskal tradizioan 'zilegizko', baina oso urri; azken batean, 'zilegi' ren erredundantzia bat baino ez da.



zilegi ZAIO

- Naturaren eskubide gorenari esker, bakoitzari **zilegi zaio** bere onurari, ustez, dagokiona egitea. (*...zilegia/zilegizkoa zaio) (*Etika*, Spinoza / Itzul.: Piarres Xarriton)
- **Zilegi izan bekit** galdera bidez erantzutea. (*Zilegia/Zilegizkoa...)
- **Ez zaizu zilegi** ankerki ordaintzea. (*Ez zaizu zilegia/zilegizkoa...)
- **Zilegi al zait** hitza? (*Zilegia/Zilegizkoa al zait...)

zilegi DU

- “Dena **dut zilegi**”, dio zenbaitek; baina ez da dena komenigarri. (*...dut zilegia/zilegizkoa)
- **Zilegi dut** testua zuzentzea, ala dagoen moduan utzi behar dut? (*Zilegia/Zilegizkoa dut)
- Eskaera egin duen erakundeak **zilegi du** helegitea aintzat ez hartzea. (...*zilegia/zilegizkoa du)

ZILEGI [dela] iruditu

- Horiek ikusita, **zilegi dirudi** sailkatzea elektrolitoak korronte elektrikoa eroateko erraztasunaren arabera.
- Ezin da, noski, baieztapen ukroniko seniorik egin, baina Barojak edota Unamunok, gaur bizi izatera, euskaraz idatziko zutela pentsatzea **zilegi iruditzen zait**. (Lekuak, Bernardo Atxaga)

ZILEGI utzi

- Legeak **zilegi uzten du** erreferendumak antolatzea.

Jakinbide zilegiak

JAKINBIDE ZILEGIA(K)

Izenondo kategoria du **zilegi**-k, adibide horretan:

[**izena** + **izenondoa** + determinatzailea].

Hona adibide gehiago:

Eskabide zilegia.
Atsegin zilegia.
Autoritate zilegia.

Helburu zilegiak.
Iruzur zilegiak.
Gerra-ekintza zilegiak.

Gasnak zekarren gure izatearen *hondar zigilu zilegia*.

(% 100 basque, Itxaro Borda)

Zeren Bizioaren *lilura zilegiak*
zapuztuko bailituzke bertuteen graziak.

(Deabruaren hiztegia, Ambroise Bierce / Itzul.:Xabier Olarra)

Esamolde gehiago baditugu euskaraz, **zilegitasuna** adierazteko:

Bidezko(a)

- Norberak ontzat dituenak laztandu eta gaiztotzat dituenak gorroto izatea **bidezko da**, noski. (Platon / Itzul.: Jokin Zaitegi)
- Kultura-gaietan hartzaile garenez gero, **bidezko da**, noski, hiztegian ere hartzaile eta zordun agertzea. (*Mitxelenaren Idazlan hautatuak*)
- Bidezko **zaio** guztiaren erdia hartzea.
- Bidezko **zirudiena** eman zioten.
- **Ez da** bidezkoa alderdikieriaz jokatzeta.

Bidezko gauza / gauza bidezkoa

- Bidezko **gauza** da lapurren ondoan bizi dena lapurren beldur izatea.
- Zein da bidezko **egia**?
- Orduan, mandatariak bidali zizkien juduei bakeak egiteko, **baldintza bidezkoak** ipiniz. (Elizen arteko Biblia, 2 M 11,14)



Universidad
del País Vasco



Euskal Herriko
Unibertsitatea

Haizu Ipar

- Ihizia **haizu** den denboraldia luzatu du gobernuak.
- Joko guztietan bezala, badira horretan ere legeak: hau **haizu**, hura ez.
- *Zotzetik da ziria, / hazitik bihia, / Gezurra lege bada, / haizu da gaizkia.*
- *Muthil gaztia, / Bilo horia, / Burian duka banitatie? / Uste duk bai naski / **Haizu dela** bethi / Gorthiaren egitia andre orori. // -Eni **haizu da** / Galdegitia, / Zuri konbeni begiratzia...* (Sallaberry, Chants populaires du Pays Basque, 1870).